

Ikerkuntzaren ebaluazioa Giza eta Gizarte Zientzietan

Nekane Balluerka Lasa
Euskal Herriko Unibertsitateko Portaera Zientzien Metodologia
jakintza-alorreko katedraduna

Ikerkuntzaren ebaluazioa oinarritzko jarduera da Goi Mailako Hezkuntzako erakundeetan eta geroz eta ondorio gehiago ditu bai ebaluatua den pertsonaren garapen profesionalen baita erakundearen nazioarteko kokapenean ere. Horregatik, ikerketa-jarduera zer den ondo definitzeak eta jakintza-adar bakoitzean jarduera hori ebaluatzeko aukera egokia ematen duten adierazleak finkatzeak garrantzi handia dauka. Artikulu honen helburua hirukoitza da: lehenik, ikerkuntza ebaluatzeko dimentsio eta adierazle nagusiak zein diren aipatzea; bigarrenik, Giza eta Gizarte Zientzietan gainontzeko jakintza-adarretan erabiltzen diren adierazle berberak erabili behar ote diren aztertzea, eta, azkenik, jakintza-eremu hauetan ebaluazio egokia burutzearen inguruan hausnarketa laburra egitea.

Ikerkuntza ebaluatzeko dimentsio eta adierazle nagusiak

Ikerketa-jarduerak hainbat ekintza barne hartzen ditu, hala nola ikerketa-proiektuetan parte hartzea, proiektu horietatik eratorritako emaitzak argitaratzea eta hedatzea (liburuak, liburuen kapituluak, txostenak, dokumentuak, kongresuak, etab.), ikertzaileak prestatzea (doktorego-tesiak zuzentzea, ikerketa-bekak zuzentzea, etab.) eta emaitzak gizartera transferitzea. Jarduera horren adierazle dira, baita ere, atzerriko unibertsitateetan egindako egonaldiak eta antzeko beste ekintza batzuk.

Eta jarduera hori ebaluatzeko adierazleak ezarri ohi dira. Oro har, adierazleak ezartzean honako helburu hauek bilatzen dira:

- Bai dagokion lurraldean bai nazioarte mailan lehiakorra izango den zientzia garatzeko lerro estrategikoak finkatzea.
- Lehiakortasuna lortu ahal izateko ekintzak lehenestea, ezagutza sortu eta transferitzeko beharrezko baliabideak jarritz.
- Askotariko eremuetan lortu diren emaitzak ebaluatu eta etorkizunean emaitza horiek hobetzeko estrategiak proposatzea.
- Erakundeek iritziak har ditzaten erraztea.

Ikerketa-jarduera ebaluatzeko dimentsioak eta adierazleak oso antzekoak dira jakintza-adar batzuetan eta besteetan, baina berorien garrantzia eta esanahia desberdina izan daiteke eta hori kontuan hartu beharko litzateke ebaluazio egokia egiteko. Ondoren, jarduera hori ebaluatzeko dimentsio nagusiak eta dimentsio bakoitzari dagozkion adierazleak aipatuko ditugu.

Lehenengo dimentsioa: Ikerketa-proiektuetan edo -kontratuetan parte hartzea

Dimentsio honen adierazle nagusiak hauek dira:

1.1. Parte hartu izan den ikerketa-proiektuen kopurua, honako erantzukizun hauetako batekin:

- Ikertzaile nagusi modura.
- Ikerketa-taldeko kide modura.
- Kanpo-aholkulari gisara.
- Prestatzen ari den ikertzaile modura.
- Kontratatua dagoen ikertzaile modura.

1.2. Proiektuaren izaera (indibiduala/kolektiboa): Giza eta Gizarte Zientzietan adierazle garrantzitsua da, ikerketa-eremu bakoitzean nola lan egiten den jakiteko aukera ematen baitu.

1.3. Finantzaketaren ezaugarriak:

- Proiektu finantzatua/ Finantzatu gabea.
- Finantzaketa-iturria (publikoa, pribatua edo mistoa): ikerkuntzak gizartearekin duen lotura adierazten du.
- Finantzaketa-iturriaren eremua (nazioartekoa, estatu mailakoa, erkidego mailakoa edo erakundearen beraren mailakoa): ikertzaile indibidualek edo ikerketa-taldeen daukaten ikuspen edo proiektzio akademikoa islatzen du.
- Lortutako finantzaketa: diziplina bakoitzean proiektuek daukaten batez besteko kostua balioesteko aukera ematen du.

Bigarren dimentsioa: Estrategia zientifikoan parte hartzea

Dimentsio honen adierazle nagusiak honako hauek dira:

2.1. Ikerketa-jardueraren ebaluazio-prozesuetan parte hartzea honako erantzukizun hauetako batekin:

- Proiektuen ebaluatzaile modura.
- Beken (doktoratu aurrekoak, doktoratu ondokoak, etab.) ebaluatzaile modura.

2.2. *Aldizkari zientifikoen (aldizkariaren kalitatea kontuan hartuta) editore nagusi edo editore atxiki gisara parte hartzea.*

Hirugarren dimentsioa: Ikerketa-proiektuko emaitzen argitalpena eta hedapena

Dimentsio honen adierazle nagusiak hauek dira:

3.1. Emaitzen argitalpena:

- Liburu, liburuko kapitulu, itzulpen, monografia eta abarren kopurua, eta berauen kalitatearen adierazgarriak.
- Aldizkari zientifikoetan argitaratutako artikuluko kopurua eta berauen kalitatearen adierazgarriak.

3.2. Emaitzen hedapena:

- Patenteak.
- Hitzaldi gonbidatuak.
- Gonbidapenik gabeko ahozko komunikazioak.
- Txosten teknikoak.
- Dibulgazio-mailako hitzaldiak, tailerrak eta jardunaldiak. Hemen sartuko litzateke ezagutzen dibulgaziorako komunikabideetan (telebista, irratia, prentsa idatzia) parte hartzea.

Dimentsio hau funtsezkoa da ikerketan egiten ari garena gizarteari helarazteko eta adituak ez diren pertsonak berorren garrantziaz jabetzeko.

Laugarren dimentsioa: Ikertzaileen prestakuntza

Dimentsio honen adierazle nagusiak honako hauek dira:

4.1. *-Doktorego-tesien zuzendaritza (nazionalak, nazioartekoak edo tutoretza partekatuan zuzendutakoak).*

4.2. *Doktoratu aurreko edo ondoko beken zuzendaritza.*

Bosgarren dimentsioa: Ikertzaile bisitari gisa atzerriko unibertsitateetan egindako egonaldiak

Dimentsio honen adierazle nagusiak hauek dira:

5.1. *Ikertzaile bisitari gisa atzerriko unibertsitateetan egindako egonaldien kopurua eta iraupena.*

5.2. *Atzerriko unibertsitateetan emandako graduondoko ikastaro kopurua.*

Pertsonak prestatzeko eta ikerketa-lerroak sendotzeko funtsezko dimentsioa da. Honelako ekintzen kopuru handi batek jarduera zientifikoak nazioarteko proiektzio garaia duela adieraz dezake.

Giza eta Gizarte Zientzietan ikerkuntza-jarduera ebaluatzeko gainontzeko jakintza-adarretan erabiltzen diren adierazle berberak erabili behar al dira?

Nire iritziz, dimentsio eta adierazle nagusiak jakintza-adar desberdinetan antzekoak izan daitezkeen arren, adierazle horien balioak adar bakoitzera egokitu behar dira. Gehiago zehaztuz, «Ikerketa-proiektuetan parte hartzea» eta «Ikertzaile bisitari gisa atzerriko unibertsitateetan egindako egonaldiak» dimentsioetan jakintza-adarren artean desberdintasun handirik ez dago, baina «Ikertzaileen prestakuntza» dimentsioan eta, batez ere, «Ikerketa-proiektuko emaitzen argitalpena eta hedapena» delakoan jakintza-adarren arteko desberdintasunak handiak dira eta, hortaz, adierazle bakoitzaren balioak desberdintasun horien arabera doitzera eskatuko luke bidezko ebaluazioak.

Giza eta Gizarte Zientzietan garatzen diren doktorego-tesiak gainontzeko jakintza-adarretan garatzen direnak baino luzeagoak izan ohi dira eta horrek eragin handia dauka bai zuzendutako doktorego-tesien kopuruan bai eta zuzendutako doktoratu aurreko nahiz osteko beken kopuruan ere. Halaber, giza eta gizarte-zientzietako argitalpenen ezaugarriengatik, jakintza-alor hauetan ikertzaile bakoitzak aurkeztu ohi duen indexatutako argitalpenen kopurua eta H indizea (indexatutako aldizkarietan artikulua bakoitzari dagokion aipu kopuruarekin lotzen dena) gainontzeko adarretan baino baxuagoa izaten da. Azkenik, «Transferentzia»tzat hartzen diren ekintzak oso desberdinak dira jakintza-alorraren arabera. Horrela, giza eta gizarte-zientzietan patenteak garatzea oso zaila da eta patente kopurua da ezagutzaren transferentziari ikusgarritasun gehien ematen dion adierazlea. Haatik, jakintza-adar hauetan lan-zama handia eta eragin sozial nabarmena daukaten ekintzak burutzen diren arren, horiek neurtzeko adierazle egokiak topatzea zaila da eta sarritan ez dira modu egokian ebaluatzen.

Giza eta Gizarte Zientzietan ebaluazio egokia burutzearen inguruko hausnarketa laburra

Giza eta Gizarte Zientzietan ebaluazio egokia burutzeko proposamen orokorra egitea oso ausarta denez, atal honetan aipatuko dudanak hausnarketa sakonago baterako abiapuntua eskaintzea beste helbururik ez dauka.

Hausnarketa horretan ebatzi beharko genukeen lehenengo zalantza adierazle kuantitatiboen edo kualitatiboen arteko aukerarena litzateke. Horri dagokionez, nire proposamena bi motatako adierazleak elkarren osagarri moduan erabiltzearen aldekoa da. Ikus daitezkeen moduan, aurreko bi ataletan ikerkuntzaren ebaluaziorako erabil daitezkeen adierazle nagusizat hartu ditudan kuantitatiboak dira. Are gehiago, gaur egun ekoizpen zientifikoa ebaluatzeko eta bikaintasun-eremuak identifikatzeko erabiltzen den adierazle nagusia argitalpen indexatuen kopurua da, hots, adierazle kuantitatibo bat. Eta adierazle kuantitatiboetan soilik oinarritzeak ebaluazio erredukzionista egitera eraman gaitzake. Izan ere, oraintxe aipatu dudak adierazleak, hots, argitalpen indexatuen kopuruak muga batzuk baditu:

1. Argitalpen kopurua manipula daiteke norberaren aipuak bultzatuz.
2. Ikertzaile baten ekoizpena modu zehatzean ebaluatzeko aukerarik ez du ematen, ez baitu sinatzaileen ordenaren edo artikulua sinatzen duten egile kopuruaren araberako doikuntzarik egiten.
3. *Web of Science* edo *Scopus*-en antzeko datu-baseetan indexatuta ez dauden argitalpenak ez ditu kontuan hartzen.

Eta esan beharra dago muga horiek Giza eta Gizarte Zientzietako ikerkuntza-jardueraren ebaluazioan eragin negatiboa dutela.

Horrengatik guztiarengatik, funtsezkoa da:

- Ebaluatu behar den jakintza-adarra eta, zehazkiago, ebaluatu behar den diziplina erreferentzia gisa hartuz, bertan garatzen den ikerkuntzaren ezaugarrietara egokitutako ebaluazioa burutzea.
- Artikulu honetan proposatu diren adierazle nagusietan oinarrituz egindako ebaluaziotik eratorritako emaitzak adierazle kualitatiboak erabiliz egindako ebaluaziotik eratorritako informazioarekin osatzea. Adierazle kualitatiboen artean adituen ebaluazioa azpimarra daiteke; ebaluazio horrek aukera ematen du adierazleen multzoa bere osotasunean ebaluatzeko eta pertsona batek edo talde batek zientziaren eremuan egindako ekarpena zein izan den jakiteko.

Artikuluaren hasieran esan dudan moduan, ikerkuntza-jardueraren ebaluazioak eragin nabarmena dauka ikertzaileen garapen profesionalean eta Goi Mailako Erakundeen nazioarteko kokapenean. Horrengatik, bidezko ebaluazioa egitea oso garrantzitsua da eta horrek jakintza-adar bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzea eskatzen du. Horrela egiten ez bada, ez da zuzena izango eta ez du lortuko ebaluazio egoki batek bilatzen duen etengabeko hobekuntza.

